

# Zenbait herri kanta

JOSE MARIA SATRUSTEGI

(Arruazu, 1930)

Erretiroa hartu zuen arte azken urte luzeetan Urdiaingo erretorea izandako idazle nafar honek euskal etnografia eta kulturari buruzko lan aipagarri asko *Egan*, *Euskera*, *Olerti*, *Luzaide eta Gure Herria* aldizkarietan, *El Pensamiento Navarro* egunkarian eta *Príncipe de Viana* eta *Euskalerrriaren Adiskideak* elkarteen buletinetan eman ditu argitara, eta beste hainbat eta hainbat liburu ere idatzi ditu Euskal Herriko historia, etnografia, mitologia, biografia, etabarri buruz. Eusko Jaurlaritzan eta Nafarroako Gobernuan euskara gaietan aholkulari kargu desberdinak eduki ditu eta Euskaltzain osoa da 1964. urteaz geroztik.

Itzulpen asko eta garrantzitsuak egin zituen Jose M<sup>a</sup> Satrustegik irakaskuntzarako euskarazko materiala sortzen hasi behar larria egon zen aspaldiko urte haietan, besteak beste J. M. Sánchez Silvaren *Ardo eta ogi Martxelín* eta Lewis Carrolen *Alizia*.

Aurrerago, eta hasieran premia izan zena gero bokazio bihurtu zitzazionean, itzulpen lanekin jarraitu zuen, eta honela dio Satrustegik berak azken urteetako bere itzulpen lanei buruz: “Aspaldikoa da G. Diaz-Plaja zenaren «Novelas y Cuentos» bildumarako elkarlanean burutu genuen *Literatura Vasca* (1972) liburukia. Herri literaturaren atalean gaztelaniaz emandako *Pazkoetan den alegerena* Urdiaingo erromantze berreskuratua, *Egun bereko alarguntsa*, *Andere lokartua*, *Neskatx ontziratua*, *Nere maite polita*, *Arranoak bortüetan*, *Alostorra*, *Bereterretxeren kantoria* eta *Nigarrez sortua* kantuek osatzen dute orduko nire saioa. Ohiko egin-kizun arrunta izan ohi da antropologia eta ahozko literaturan euskal ondareko gaien itzulpena, izkribu zaharrak aurkeztean bereziki. Luze joan liteke bizi guztiko lan ezkutuaren zerrenda soila aipatzea bera. Adibide batzuk transkribatuz azalduko dut eskatu zaidan lekukotasuna.”

## Zenbait herri kanta

### Egun bereko alarguntsa

Goizean goizik jaiki ninduzun, ezkondu nintzen goizean;  
bai eta ere zetaz beztitu ekia jalgi zenean.

Etxekoandere zabal ninduzun eguerdi erditan,  
bai eta ere alarguntsa gazte ekia sartu zenian.

—»Musde Irigarai, ene jauna, altxa izadazu buria;

Ala dolutzen ote zaizu enekila ezkontzia?»

—»Ez, ez, etzitadazu dolutzen zure esposatzia,  
ez eta ere doluturen bizi nizano, maitia.

Nik banizun maitetto bat mundu ororen isilik,  
mundu ororen isilik eta Jinko Jaunari ageririk;

buket bat igorri ditadazut lili arraroz eginik,  
lili arraroz eginik eta erdia pozuaturik.

Zazpi urtez etxeke dizut gizon hila kanberan,  
egunaz lur hotzian eta gauaz bi besuen artian;

zitru urez ukuzten nizun astian egun batian,  
astian egun batian eta, ostirale goizian».

Aita Onaindia. *Milla euskal-olerki eder*, (1954) 10. zn., 46. or.

## Zenbait herri kanta

JOSE MARIA SATRUSTEGI

### Egun bereko alarguntsa

*Temprano me levanté la mañana de mi boda,  
me vestí luego de seda con la alborada.  
Era señora de casa a punto del mediodía  
y a la caída del sol ya joven viuda.*  
—»Mi señor de Irigarai, ¡levante usted la cabeza!  
¿Es que casarse conmigo quizá le pesa?»  
—»No, no es que me pese tomarte esposa mía,  
ni me pesará jamás mientras yo viva.  
A ocultas de todo el mundo yo tenía otro amorcillo  
a ocultas de todo el mundo y del cielo conocido.  
Me ha mandado un ramillete trenzado de flores raras,  
flores raras y la mitad envenenadas.  
¡Oh el jardín de Azkubia, cómo despide fragancia!  
Late un recuerdo de muerte en el ramo de sus plantas.  
Por siete años retuve al esposo muerto en mi cuarto,  
de día en el frío suelo y de noche entre los brazos.  
Una vez cada semana lavé en agua limonada,  
en agua limonada, sí, los viernes por la mañana.»

## Pazkoetan alegerena

Pazkoetan dan alegerena / Pazkoa Maiatzekoa,  
 Pazkoa Maiatzekoa zan da / jaiki nintzaren goizian.  
 Jaiki nintzaren goizian eta / paseatzeko kalian  
 paseatzeko kalian eta / egunian edo gaubian;  
 Egunian da gaubian eta / izarra argi donian,  
 izarra argi donian eta / laztantxoaren aurrian.  
 Neure laztana kalean dabil / aide haundiak konplitzen,  
 aide haundiak konplitzen eta / gonbitearen emaiten.  
 Neroni ere gonbiaturik nago / ezta hortara joaten;  
 ehun bat lagun ikus nituen / atal ondoan sartutzen,  
 beste horrenbeste edo gehiago / eskalaretan igotzen.  
 Nere laztanan ezta horietan / guk jan genduen usoa;  
 Beste guztiak konplitu eta / laztanandako hegoa.  
 Nere laztana mai goienian / ni barrenian egoiten,  
 gogoak baretz, baretz, baretz ta / bihotzak ez du laguntzen.  
 Hark niri gainu, nik hari gainu / alkar genduen penatzen;  
 alkar genduen penatzen eta / arimea re lainatzen.  
 Estudiante barbailasku bat / hasi zitzaigun igartzten;  
 hasi zitzaigun ubartzen eta / hasi zitzaigun kargu hartzen.  
 'In saeculorum' gerta eztailela / meza berria ematen;  
 meza berria ematen eta / epistolaren kantatzen.  
 Epistolia kantatzen eta / urre kalizia goratzen.  
 Estudiante barbailaskua / noiz eman behar dok mezea?  
 Hire mezaren diruarekin / egin behar diat lobeaa.

J. M. Satrustegi. 'Romance del amado relegado en la  
 literatura popular vasca'. *FLV* 1, 1969, 353-361 or.

## Pazkoetan alegerena

*La más alegre de las pascuas / es la Pascua de Mayo.  
 Me levanté por la mañana, / a pasear por el poblado  
 durante el día y la noche / a la luz del cielo estrellado;  
 el cielo estrellado / con la amada a mi lado.  
 Mi amada recorre las calles / pensando en los más allegados;  
 los más allegados y / cursando también los recados.  
 Al banquete de boda / también yo estaba invitado.  
 Vi cerca de cien comensales / franquear la puerta de paso  
 y subían por la escalera / por lo menos otros tantos.  
 Nosotros comimos paloma / en el banquete de mi amada  
 y después de cumplir con todos, / para ella sólo las alas.  
 Me hacía señas y yo a ella / con gran dolor en las miradas;  
 con gran dolor en las miradas / se nos nublaba el alma.  
 A un estudiante intempestivo / le dio por observarnos,  
 empezó a darse cuenta / y también a reprocharnos.  
 'In saeculorum' que no llegue / a decir la primera misa,  
 a levantar el cáliz de oro / ni a leer siquiera la epístola.  
 Estudiante intempestivo / ¿cuándo es tu misa nueva?  
 Quiero hacerme una capa nueva / con el estipendio de ella.*

## Andere lokartua

Elorri xuriaren azpian anderea lokartu,  
arrosa bezain eder, elurra bezain xuririk,  
hirur kapitainek hor daramate gortez enganaturik.  
Hirur kapitainak jin ziren andearearen xerka,  
zamarian ezarri dute mantoaz trozaturik:  
Pariserat eraman dute aita-amek jakin gabe.  
Parisen ostalertsu batek ederki salutatu,  
ederki salutatu, berriak ere galdetu:  
—»Bortxaz ala amodioz jina ziren, anderea, errazu?»  
Anderea zen orduian eztiki deklaratu:  
—»Ez, ez, ene bihotza arras bortxaz jina duzu,  
hirur kapitainek galeriatik ebatsirik jina nuzu».  
Kapitainek hitz hori entzunik jin ziren andeareganat:  
—»Anderea afal zaite ezirik eta trankilik,  
hirur kapitain badiuzketzu gaur zure zerbitzari».  
Anderea, hitz horiek entzunik, hilotza zen erori,  
kapitainak ere partitu beren tropak harturik  
ongi nigar egiten zutela andeareari dolu emanik.  
—»Anderea hila da, non ehortziren dugu?  
Aitaren baratzean ezpelaren azpian  
liho liliz estalirik eta tonba eder batian.  
Handik hirugarren egunean hilak aitari oihu:  
—»Aita entzun nazazu, ni orai hemen nuzu,  
birjinitatea beiratu nahiz hila egona nuzu».  
—»Hori hala egin baduzu, behar bezalakoa zira zu.  
Moltsan sartzen tut eskuak zure ezkonarazteko  
Jaun gazte aberats batekilan zure kalitateko».

Aita Onaindia. *MEOE* (1954) 15.zn, 50. or.

## Andere lokartua

*Bajo un espino blanco duerme la dama  
 bella como una rosa, cual nieve blanca,  
 tres capitanes la llevan engañada.  
 En busca de ella vienen tres capitanes,  
 enfundada en un manto pónenla al baste:  
 a París se la llevan sin que sepan sus padres.  
 En París la hostelera, atenta, le saluda,  
 atenta la saluda y le pregunta:  
 —»Dime, ¿amor te trae o quizá la fuerza?  
 La muchacha, de pronto, dice con calma:  
 —»¡No, no! Mi corazón por fuerza se arrastra;  
 capitanes me traen de mi terraza».  
 Los capitanes oyen a la cautiva:  
 —»¡Cena, mujer, a gusto! Cena tranquila!  
 Hoy por tres capitanes serás servida».  
 Muere, al oír, la joven y se desploma.  
 Ya van los capitanes frente a sus tropas  
 dando el pésame a la dueña mientras lloran.  
 —»Está ya muerta: ¿Dónde le damos tierra?»  
 Debajo del boj de la huerta paterna  
 entre flores de lino en tumba de piedra.  
 Al cabo de tres días grita a su padre:  
 —»¡Escuchadme! Aquí me tenéis delante;  
 por mantenerme virgen era cadáver.»  
 —»Si así lo hiciste, te muestras virtuosa,  
 echo mano a la bolsa para tu boda  
 con algún joven rico y de vitola.»*

## Neskatx ontziratua

Brodatzen ari nintzen ene salan jarririk;  
aire bat entzun nuen itsasoko aldetik,  
itsaso aldetik ontzian kantaturik.

Brodatzea utzirik gan nintzen amagana,  
hean jalgiko nintzen gibelego leihora,  
gibelego leihora eta, itsasoko aldera.

—»Bai, habil, haurra, habil, erron kapitainari  
jin dadin afaitera, hemen deskantsatzera,  
hemen deskantsantzera, salaren ikustera.»

—»Jaun kapitaina, amak igortzen nau zugana,  
jin zaiten afaitera, hantxet deskantsatzera,  
hantxet deskantsatzera, salaren ikustera.»

—»Andre gazte xarmanta, oi, ezin ditekena!  
Ipar haizea dugu, gan behar dut aitzina:  
ezin ilkia baitut, hauxe da ene pena.»

«Andre gazte xarmanta, zu sar zaitte ontzira  
gurekin afaitera eta deskantsatzera,  
hortxet deskantsatzera, salaren ikustera.»

Andre gazte xarmanta igaiten da ontzira,  
han emaiten diote *lo-belarra* papora  
eta ontzi handian lo dago gaixo hura.

—Jaun kapitaina, nora daramazu zuk haurra?  
Zaluxko itzulazu hartu duzun lekura,  
hartu duzun lekura, aita-amen gortera.»

.../...



## Neskatx ontziratua

*Estaba bordando sentada en mi sala;  
 Sentí una melodía desde las aguas,  
 desde las aguas la canción de una barca.  
 Dejando el hilo fui luego a preguntar:  
 —¿Subiré, madre, a la ventana de atrás,  
 a la ventana de atrás al lado del mar?  
 —»Vete, hija mía, vete y dí al capitán  
 que a cenar venga para así descansar,  
 descansar y ver la sala principal.»  
 —»¡Oh capitán! Mi madre me manda a tí:  
 Vente a cenar, descansarás luego allí,  
 Descansarás allí en la sala de dormir.»  
 —»Hermosa joven, imposible agradarte;  
 sopla el norte y hay que seguir adelante,  
 no hay salida, con gran pena por mi parte.»  
 «Bella muchacha, ven tu a nuestro bote  
 a cenar juntos y a cambiar de horizonte,  
 cambiar de horizonte y ver el camarote.»  
 La bella joven ha subido a la lancha,  
 le dan adormidera a la garganta  
 y duerme la infeliz en la enorme barca.  
 —»Mi capitán, ¿a dónde queréis llevarle?  
 Volvedla pronto allí donde la tomásteis,  
 a donde la tomásteis, junto a sus padres.»*

.../...

—»Nere mariñel ona, hedazak, heda bela!  
Beti nahi nuena jina zaitak aldera,  
ez duk hain usu jiten zoriona eskura!»  
—»Jaun kapitaina, nora ekarri nauzu huna?  
Zalu itzul nezazu hartu nauzun lekura,  
hartu nauzun lekura, aita-amen gortera».  
—»Andre gazte xarmanta, hori ezin egina.  
Hiru ehun lekutan juanak gira aitzina...  
Ene meneko zira, orain duzu orena.»  
Andre gazte xarmantak, hor hartzen duzu ezpata,  
bihotzetik sartzen ta, hila doa lurrera;  
aldiz, haren arima hegaldaka zerura.  
—»Nere kapitain jauna, hauxe duzu malurra!»  
—»Nere mariñel ona, norat aurtiki haurra?»  
—»Norat aurtiki haurra? Hortxet itsas zolarra!»  
Hiru ehun lekutan dago itsas-lehorra:  
Oi, ama anderea, so egizu lehorra;  
Zure alaba gaixoa, uhinak darabila.

Aita Onaindia. *MEOE* (1954) 16, 52. or.

—»*Fiel marinero, puedes despegar velas;  
lo que siempre deseara me llega,  
no se logra felicidad cuando quiera.»*

—»*Capitán, ¿como me has traído a esta parte?  
Vuélveme pronto allí donde me tomaste,  
a donde me tomaste, junto a mis padres.»*

—»*Eso no puede ser, hermosa muchacha,  
trescientas leguas se alejaron las playas;  
estás en mi poder, la hora es ya llegada.»*

*La bella jovencita toma una espada  
y, abierto el corazón, yace en las tablas;  
alada se elevó al cielo su alma.»*

—*¡Qué gran desgracia, mi señor capitán!*

—»*Fiel marinero, ¿dónde la vamos a echar?»*

—*¿Dónde la vamos a echar? Al fondo del mar.»*

*A trescientas leguas se encuentran las playas:*

—»*Señora madre, asómate a la ventana,  
tu desgraciada hija flota en las aguas.»*

## Alostorrea

Alostorrea, bai, Alostorrea,  
Alostorreko zurubi luzea!  
Alostorrean nengoenean goruetan  
bele beltzak kua! kua! leihoetan.

Etxe eder leiho gabe honetan  
ez naiz sartu zazpi urte hauetan,  
eta zortzigarrenean  
neretzat zorigaitzean,  
aita Beltranen hiltzean.  
Amandrea nerea nitaz  
bi erdi egin zenean,  
mila oilo hil ziren ezkaratzean,  
zazpi zezen korritu ere enparantzean;  
ni ere banengoen lumatxo artean  
eta nere amandrea urre gortina artean.  
Gero Bidania guztian bat zen erorik eta zororik,  
aitajauna nireak hura senartzat eman dit,  
baina ez nuke trukatuko hobeagoagatik.  
Aitajauna nireak niri eman zidan iminan dotea  
Amandreak ere isilik bere partea.  
Lehen gauean  
begiak, bihotzak, loen mendean,  
baita berriz ere bigarrenean:  
hirugarrena igaro baino lehen  
ondo poztu zinen Alostorrea  
heldu zelako niregan semea.

.../...

## Alostorrea

*¡Alostorrea, sí, Torre de Alós!  
 ¡Larga escalera  
 la de la Torre de Alós!  
 Hilando en Alostorrea  
 negro cuervo grazna cra, cra!  
 y en las almenas se queda.*

*En esta hermosa casa sin ventanas  
 no he entrado yo en estos siete años  
 y, luego,  
 en el octavo  
 por muerte de Beltrán, mi señor padre,  
 para mi llanto.  
 Cuando mi señora madre  
 me libró de sus entrañas  
 mil gallinas se mataron  
 en la entrada,  
 se lidiaron siete toros  
 en la antecasa;  
 yo me mullía  
 en plumas blandas  
 y ella, la señora madre,  
 entre cortinas doradas.*

*Más tarde, en toda Bidania  
 hubo sólo un lelo y loco  
 y el señor, mi padre,  
 me dio a mí por esposo,  
 aunque no lo cambiaría,  
 ni en mejor, por otro.  
 En celemín  
 me dio la dote mi padre  
 y mi madre, en secreto,  
 también me legó su parte.  
 En la primera noche pudo el sueño  
 conciliar los ojos y corazón,  
 también, luego, en la segunda;  
 pero bien te alegré, Torre de Alós,  
 antes de que pasara la tercera  
 porque te traía un hijo yo.*

.../...

Alostorrea, bai, Alostorrea,  
Alostorreko zurubi luzea!  
Alostorrean nengoenean goruetan  
bele beltzak kua! kua! leihoetan.

Handik jaiki eta urre goruaz jo nuen,  
bainan handik laster berri gaiztoak jo ninduen.  
Zaldunak esan zion: «Ixo ixo! ama doilorkumea,  
ez da bada hori zure esaterea.»  
—»Ixo, ixo! zaldun odol txarreko gaztea  
hala ere gutxiago zen zure eginbidea.»  
Ahizpa ederrak hor daude ederrik eta galantik  
hatz ederrak eraztunez beterik,  
ez daukatela mantuetan zulorik  
hala ere gutxiago begian negarrik.  
Amandreari ere bai poza dario,  
Nire bihotzari bakarrik mindura jario.  
Aitajauna nirea Gaztelan zenean  
Isil askorik jaio zen Alostorrean semea,  
eta halere isilagorik dago bakean  
hazitzen Zarautz aldean,  
gure jatorriaren lohitukerian.  
Ai, hau mindura beltza! Hau nire lotsa!  
Alabak negarra eta aita lur hotza!  
Zeinek lohitu zaitu, Alostorrea?  
Ai nire aita maite, aita maitea!  
Hiltzea ondo egin duzu, aitajaun maitea.

Aita Onaindia. *MEOE*, (1954) 7, 41. or.

*¡Alostorrea, sí, Torre de Alós!  
 ¡Larga escalera  
 la de la Torre de Alós!  
 Hilando en Alostorrea  
 negro cuervo grazna cra, cra!  
 y en las almenas se queda.*

*Me levanté  
 y le pegué con la dorada rueca,  
 pero pronto me abatió  
 la mala nueva.  
 —»¡Calla! - dice el caballero-  
 torda, nacida  
 de mala madre  
 que otra es ahora tu palabrería.»  
 —»¡Calla, calla más bien tú  
 bastardo de ruin nobleza,  
 que no te cabe, en derecho,  
 la entrada aquí en escena!  
 ¡Ellas, mis bellas hermanas,  
 esbeltas y rozagantes,  
 sus finos dedos  
 bien surtidos de anulares,  
 sin desgarrones  
 en ningún traje  
 y, mucho menos,  
 lágrimas en sus semblantes!*

*También mi señora madre  
 vibra de satisfacción:  
 sólo queda para llanto  
 la herida de mi dolor.  
 Mientras mi padre  
 combatía en Castilla  
 en la Torre de Alós nació un hijo  
 a escondidas,  
 y con más sigilo,  
 hoy todavía,  
 por las costas de Zarautz  
 en paz lo crían.  
 ¡Ay, esta negra angustia!  
 Esta vergüenza!  
 Lloro la hija  
 y el padre yace sobre fría tierra.  
 ¿Quién te manchó  
 Alostorrea?  
 ¡Ay, mi padre querido! ¡Mi buen padre!  
 Bien hecho que en buena hora te mueras.*

### **Bereterretxen kantoria**

Altzak eztu bihotzik,  
ez gaztanberak hezurrik...  
Enian uste erraiten ziela aitonen semek gezurrik.

Andozeko ibarra  
ala ibar luzea!  
Hiruretan ebaki zaitan armarik gabe bihotza.

Bereterretzek ohetik  
neskatoari eztiki:  
—»Habil, eta so egin ezan gizonik denez ageri.»

Neskatoak berehala  
ikusi zian bezala,  
hirur dozena bazabiltzala leiho batetik besteala.

Bereterretzek leihotik  
jaun kuntiarri goraintzi;  
ehun behi bazereitzola beren zezena ondotik.

Jaun kuntiak berhala  
traidore batek bezala:  
—»Bereterretx, haigü bortala, ützuliren hiz berhala.»

—»Ama, indazüt atorra  
menturaz sekulakoa!  
Bizi denak oroit ukenen dü Bazko gauerdi ondoa.»

Marisantzen lasterra  
Bostmendietan behera!  
Bi belaünez errestan sartu Lakarri Buztanozubira.»

.../...



### Bereterretxen kantoria

*No hay médula en el aliso  
ni hueso en el requesón:  
no pensaba que mintieran  
los hijos de gran señor.*

*¡Qué largo el valle de Andoze!  
Se me partió  
hasta tres veces,  
sin arma, el corazón.*

*Bereterretxe desde la cama,  
«vete y mira  
—dice en calma a la muchacha—  
si algún hombre se vislumbra  
en lontananza.»*

*Tan pronto como los viera  
adviértele la muchacha,  
que tres docenas corrían  
de una a otra ventana.*

*Bereterretxe saluda  
al conde desde la estancia,  
que cien vacas con su toro  
de inmediato le manda.*

*Al punto el señor conde  
con estilo de traidor,  
«Ven -le dice- a la puerta,  
vendrás pronto a tu mansión.»*

*—»Dame, madre, la camisa  
quizá para mi mortaja;  
recordarán quienes vivan  
la medianoche de Pascua.»*

*Cómo corre Mari Sanz  
por la ladera que baja  
de Bostmendieta!  
Y al llegar a la entrada,  
Lakarri Buztanozubi,  
sobre rodillas se arrastra.*

.../...

—»Buztanozubi gaztea,  
ene anaia maitea:  
hitaz hunik ez baldin bada, joan da ene semea.»

—»Arreba, hago isilik!  
Ez, otoi, egin nigarrik!  
Hire semea bizi bada, Mauliala dün joanik.»

Marisantzen lasterra  
Jaun kuntiaren bortala!  
—»Ai, ei! Eta, jauna, nun duzie ene seme galanta?»

—»Hik bahiena semerik  
Bereterretxez besterik?  
Ezpeldoi altian dün hilik; habil eraikan bizirik!»

Ezpeldoiko jentiak  
ala sentimendu gabiak!  
Hila hain huilan uken eta deusere etzakienak!

Ezpeldoiko alaba  
Margarita deitzen dena,  
Bereterretxen odoletik aürkaz biltzen ari da.

Ezpeldoiko bukata,  
ala bukata ederra!  
Bereterretxen atorretarik hirur dozena ümen da.

Aita Onaindia. *MEOE*, (1954) 8, 43. or.

—«Mi joven Buztanozubi,  
hermano mío querido;  
si tu no lo remedias  
habrá expirado mi hijo.»

—«Calla, cállate hermano  
y no llores, por favor;  
si es que aún vive tu hijo  
habrá ido a Mauleón.»

A casa del señor conde  
va corriendo Mari Sanz:  
—«¡Ai, ei! Señor,  
¿mi buen hijo dónde está?»

—«Fuera de Bereterretxe  
¿tuviste acaso otro hijo?  
Yace muerto en Ezpeldoí,  
trata de tornarlo vivo.»

Los vecinos de Ezpeldoí  
¡Qué gente sin sentimientos!  
Ni se dan por enterados  
teniendo tan cerca al muerto.

Una hija de Ezpeldoí  
que se llama Margarita,  
va tomada a manos llenas  
de la sangre de la víctima.

¡La colada de Ezpeldoí  
sí que fue colada fuerte!  
Tres docenas de camisas  
de las de Bereterretxe.

## **Negarrez sortu nintzen**

Negarrez sortu nintzen, negarrez hiltzeko,  
ez ordea munduan luzaz bizitzeko;  
jendek izanen dute erraiteko frango,  
aita-ama maiteak zuen biendako.

Aita-ama maiteak, mundura zertako  
eman izan nauzue zorigaitz hontako?  
Nik ez nuen hobetik hola tratatzeko,  
Federik eman gabe abandonatzeko.

Sortu nintzen ordutik hiru oren gabe  
bero-xoko batean, gaixoa, eman naute;  
naihaur bakarrik bizi, txoriak haurride  
ene konsolatzerat kantuz heldu dire.

Ni goizeko aroan hementxe paratu,  
geroztik eguzkia gainetik pasatu:  
aita gorde da eta amak nau ukatu,  
ez ote naute behar norbaitek altxatu?

Zorte triste hontan naiz mundura etorri,  
oi, hemen niagozu bildots bat iduri,  
lurra seaska eta zerua estalgi  
norena ote naizen Jainkoak badaki.

Zeruan eguzkia zelarik apaldu  
andre gazte bat zaitan aldetik pasatu;  
aingeru bat nintzela zenean ohartu  
amultsuki ninduen besoetan hartu.

.../...

## **Negarrez sortu nintzen**

*Llorando nací y morí llorando  
para dejar este mundo muy pronto;  
muchos reproches vertirá la gente,  
padres míos queridos, por vosotros.*

*¿Por qué, padres queridos, me trajísteis  
al mundo para este fatal destino?  
No tuve yo la culpa del suceso  
al ser abandonado sin bautismo.*

*Antes de tres horas de haber nacido  
me han puesto, ¡pobre!, en un sitio cálido,  
hermandad solitaria con las aves  
que van a consolarme con sus cantos.*

*Depositado aquí por la mañana  
he visto luego al sol pasar por alto:  
mi madre me dejó, se oculta el padre,  
¿nadie será capaz de echarme mano?*

*Con esta mala suerte vine al mundo  
y aquí me encuentro yo como cordero,  
tierra por cuna y por cubierta el cielo:  
sólo Dios sabe a quiénes pertenezco.*

*A punto de doblar ya el sol, al fondo,  
una mujer joven pasó a mi lado.  
Apercibida de que yo era un ángel,  
con gran afecto me tomó en sus brazos.*

.../...

—»Zato enekin, zato, aingeru maitea!  
Dolugarri liteke zu hemen uztea...  
Bozkario enetzat zutaz jabetzea,  
erakutsiko dazut zeruko bidea.

Bataiatu ondoko goiz alba gorrian  
Jainkoak bildu zuen agur ederrean:  
haurra ez da galduko munduko bizian,  
aingeruekin dago zeruko lorian.

Aita Onaindia. *MEOE* (1954) 77, 98. or.

—»*Vente conmigo! Ven ángel querido;  
penoso fuera esquivar tu encuentro,  
y adueñarme de tí inmenso gozo:  
te enseñaré el camino del cielo.*

*En alba rosa que siguió al bautismo  
lo recogió el Señor con bello gesto.  
Su vida no peligrará en el mundo,  
goza ya con los ángeles excelsos.*